

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure produktoa zilindro formako tubo bat da. Tubo horrek sentzore infrogorriak edukiko ditu eta zaharren motoetan jarri ahalko da motoa espaloitik eror ez dadin. Ondorioz, motor horiek erabiltzen dituzten pertsoneri zuzenduta dago gure produktua. Moto horiek erabiltzen dituzten pertsonak, normalean, pertsona helduak eta desgaitasunak dituzten pertsonak izaten dira.

Merkatuari dagokionez, bezeroak oso zehatzak dira, hori dela eta, gure merkatu mota merkatu-nitxoak izango da. Horrek, zenbait desabantaila izan ditzake gure bezero kopurua ez baita oso handia izango. Baina baditu zenbait abantaila ere, gure produktua egiterako garaian bezeroen beharrak zeintzuk diren argi izango baititugu.

Bezeroak direla eta, hiru milioi bezero potentzial eduki ditzakegula aurreikusten dugu Espainiako 80 urte baino gehiago dituzten herritarren artean. Horretaz gain, 2.5 milioi pertsona daude Espanian mugikortasun murriztua dutenak eta horiek ere gure bezeroak izan daitezke. Gure bezero garrantzitsuenak pertsona helduak eta mugitzeko ahalmen mugatua duten pertsonak izango dira.

Azkenik, gure bezeroek gure produktua behar izateko arrazoia beraiek kalean dabilzanean segurtasuna bilatzen dutela da, izan ere, gure produktua ez dutenek ez dute segurtasuna bermatzen. Gainera, adineko jendeak maiz ikusmeneko arazoak izaten dituzte eta motorrean ibiltzean oso adi egon behar dira espaloitik ez erortzeko; produktuarekin berriz ez dute horrelako kezkarik izango.